

Jose Azkarate Arejolaleiba

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1915-2012)*

Aurkibidea

Biografia



Marin auzoan jaio zen 1915ean. Aita bertakoa zuen eta ama Aramaioko "Gatxikarro" (Azkoaga) baserrian jaio zen. Gasteizko seminarioan ikasi zuen eta bertan Barandiaran eta Lekuona izan zituen irakasle, besteak beste.

Zintak

ESK-010

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-09-22
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ESK-013

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-10-05
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ESK-017

- **Proiektua:** Eskoriatzako argazki fondoaren dokumentazioa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** CD

ESK-018

- **Proiektua:** Eskoriatzako argazki fondoaren dokumentazioa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** CD

ESK-019

- **Proiektua:** Eskoriatzako argazki fondoaren dokumentazioa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** CD

ESK-020

- **Proiektua:** Eskoriatzako argazki fondoaren dokumentazioa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** CD

ESK-066

- **Proiektua:** Loramendi Euskara Elkartea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cantera, Marta - Gomez, Raquel - Rivas, Isuri
- **Data:** 1997-01-01
- **Iraupena:** 19 min

- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Euskara Elkarte, Loramendi

ESK-072

- **Proiektua:** Loramendi Euskara Elkarte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Baena Romero, Javi - Cantera Aguado, Santiago - Some Salgado, Hodei
- **Data:** 1997-01-01
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Euskara Elkarte, Loramendi

Pasarteak

1. Marin auzoa; trenbidearen inguruko lanak

- **Erref:** ESK-010/001
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Jatorria. Marin auzoan jaiotakoa 1915ean. Trenbidea egiten zeuden orduan; Gatzaga-Eskoriatza ibilbidea egiten zuen trenak. Garai hartan don Juan Ibargutxi abadea zegoen Marin auzoan. Don Juan Ibargutxiren obra; idatzitako liburuak. Don Juan Ibargutxi euskaltzalea zen. Jose, "Garaikua" baserrian jaiotakoa. Gurasoen jatorria: aita, bertakoa. Ama, Aramaioko "Gatxikarro" (Azkoaga) baserrian jaio zen. Aramaioko bi auzo, Maringoak izatera pasatu ziren.</p>

Transkripzioa

- Kontauko destazu noiz jaixo ziñan eta nun jaixotakua zaran?
- Ba, ni jaio nitzan Mariñen, ezta? Marin badakizu dala gure [auzoba], ezta? Bai. Jaio nitzen, gaiñera, milla bederatzirehun eta hamabostian. Orduaintxe zebitzen trenbidie eitten. Trenbidie ni jaio nitzienien trenbidie eitten zebillen Gatzagaindik Eskoriatzara bitartian. Bai. Eta ni jaio nitzan urtietan zegoan apaiz Mariñen Don Juan Ibargutxi. Juan Ibargutxi euskal liburuak idatzi dittuena, batez ere teologiakoak. Bai, idatzi zittuan. Horrek idatzi zittuan, ba, aginduak, lehelengo aginduak, gero [...] edo sakramentuak. Horren esplikaziñua, ezta? Ta gero otoitza. Otoitza. Eta gero beste liburu bat geruao Ama Birjiñari buruz, ezta? Bai, Ama Birjiñari buruz.
- Eta zu bertan, Marin auzuan, ze basarritan edo...?
- Ni jaio nitzan, ba, Garaikua baserrian. Garaikua baserri zaharra. Jausi zan, baiña jausi orduko in zuen onduan barri bat. Ta oin barrian bizi dira nere lobak, nere lobak, bai.
- Eta gurasuak bertakuak zian?
- Baitte. Bai, gure gurasuak, ba, bertakuak zian. Aitta bertan Maringua, Garaikuan jaixotakua; eta ama, berriz, Gatxikarro Araba partian dago, Aramaionakua da, ezta? Azkoagako parrokiakua da. Eta, orduan, gure ama jaio zan herri hori, ba, Azkoagako parrokiakua zan eta amaren bataioa-ta

han egin ziren Azkuen eta haintxe daude gure amaren honek partidak-eta. Gero, hori, Gatzikarrotza auzo bat da; beste bi auzo pasa ziran, parrokia, pasa zan Maringo parrokia izatera.

2. Baserrian errentero; antzinako bizimodua

- **Erref:** ESK-010/003
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Jaiotetxea nolakoa zen. Oso baserri zaharra. Errentero izandakoak; gerora baserria erosi zuten gurasoek. Baserriaren jabea, Madrilen bizi zen. Haren administraria eta aitaren arteko hartu-emana. Jabeak baserria salgai ipini eta Azkaratetarrak nola erosi zuten. Etxea nola ordaindu zuten. Anaia basogintzan lanean.

Transkripzioa

- Eta zeuen basarrixa zelakua zan?

- Gure basarrixa zaharra, oso zaharra zan. Oso zaharra, bai. Nik uste det sasoi baten holako ardi txabolan bat edo izango zan. Bai. Baiña... ba, baserria zaharra zalako saldu ere in zan, e? Gure aitta jaixo zanian ta gure aitta ezkondu ta gero saldu zuen... bueno, erosi zuten baserria. Baserri... gu errenteruak giñan, ezta? Errenteruak ziren gure aitta ta. Baiña, ba, basarri zaharra ta nahi zuten, ba, zertxobait hobetu zedilla baserri hori, ezta? Eta, ba, zeari, uezabari... Uezaba, jabia, baserri jabia, bizi zan Madrillen. Eta zeukan administradore bat, ezta? Villareal de Alava, ezta? Arabako Villarrealen, Legutianon. Eta, ba, hari esan zion gure aittak zeoze obra edo eitteko, ezta? Ha etxia oso eskasa zegola ta. Ta, ba, zeak agindu omen zion uezabak edo administradoriari ia ikusi zezala, ba, etxe hori ia ze obra edo ein litteken. Eta ikusi zuanian esan omen zeban: "Honek ez du merezi obrarik egitterik. Hau jo-ta bota ta barri bat ein". Eta, joño, orduan uezabak pentsau omen zuen: "Ño! Barria eittia asko kostauko jata". Salgai ipini zuan. Salgai, ezta? Eta aittak, ba, "erosiko nuke, baiña nola pagau?" esaten zuan, "nola pagau hori?". Ta konsulta egin zuen zerarekin, herriko apaizarekin, ezta? Ta apaizak esan omen zion: "Erosizu bai, ta nahiz ta oin pagau... ezin pagau, dirua topauko dezu. Ta zure baserriak dauko basuak asko, ezta? Baso arboladiak eta, ezta? Asko dauka. Eta handik arboletatik eta atarako dozu zuk hori pagatzeko". Eta holaxe erosi in zuan.

- Apaizak pixkat animau zeban?

- Bai, animau zuan, bai. Harexen konsejuari jarraituaz, ba, erosi in zuen etxia. Eta gero etxe hori, ba, pagau zan holaxe, apaizak esanda bezelaxe. Gure anaia, lehelengo [...] nere anaia, pixkat mutil in zan ta lanerako oso zan zea, abilidade haundikua, ezta? Eta ikatzak eta egin zittuen ta basuetatik atara zittuen egurra be bai ta ikatza be bai. Ta horreik... holako lan batzuk in ta gero, ba, pagau zuten etxiori. Pagau zuten, bai. Ta gero, harrezkero, ba etxien jabe dira.

- Eta esan dozu administradorea Villarealgua zala...

- Villarrealen zegan, bai.

- Orduan normala izaten zan errentero egoten zian basarrietan

administradore bat egotia?

- Administradore bat izetia? Bai, hola zan, hola zan, itxuria danez.
- Eta jabia, esan dozu, Madillen?
- Jabia Madrillen, bai.

3. Marin auzoa; ermitak

- **Erref:** ESK-010/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Marin auzoa nolakoa zen; ermita. Maringo ermita zaharrena, San Lorenzo (Arane baserriaren ondoan). San Lorenzo santua Santa Luzia ermitara eraman zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta Marin auzua gitxi gorabehera goguan dakazu zelakua zan? Basarri asko zeren, ermittarik zeuan...?
- E?
- Ermittarik edo...?
- Ermittak be bai. Ermittak... Oin geratzen da bat, baiña lehen zauen beste bat. Bai. Baiña bestiori, lehelengo ermita zaharra, zaharrena, zan San Lorenzo. Euen Arane baserri onduan. Arane... Dao baserri bat Arane izenekue, ezta? Haren inguruen zeuen hori ermittaori. Ta ermittaori, ba, nolabait hondatu zan eta han euen santua San Lorenzo. San Lorenzo ekarri zan beste ermita batera. Beste ermita bat egin zan oso ederra —oain ondo dago— Santa Luzia, ezta? Ta Santa Luzian jarri zuten hori, ekarri zuten hori San Lorenzo hori ere. Ta [...] oain zean dago, Donostiako artxi... esto...
- San Telmon edo?
- Ez, esto... obispaduko...
- Diocesis...
- Bai, diozesiko... zela esaten da? Museuan. Bai. Haintxe dago, baiña Maringua da ta uste dugu laister barriro Mariñera ekarriko dutela. Baiña haintxe agertzen da Maringua dala, ezta? Ta hoixe da, ermita hartatik ekarritakua.

4. Maringo ermita, parrokia

- **Erref:** ESK-010/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Santa Luzia ermita. Parrokia berriz, Santa Maria Magdalena.</p>

Transkripzioa

- Eta esaten dozu gerora ein zala...
- Gerora ein zan
- Santa Luzia...
- ... Santa Luzia.
- ... gerora eindakua dala, ez? Barrixa da, orduan...
- Bai. Ha gero, ba... Harek be eukiko dittu... eukiko dittu berrehun bat urte bai. [...] Bai, bai. Baiñe haren dauken [...] guztia dago, nox ein zan ta zenbat gastau zan ta dana dago ermitta horrena, e! Bai, Santa Luzia ermittarena. Bai.
- Eta, orduan, auzo horretan ze jai ospatzen zan? San Lorenzo eguna ospatzen zan edo...?
- Ez, ez, Madalena. Parrokia zan Madalenana, Santa Maria Madalena. Madalena parrokia da, parrokiko zaindari da Santa Maria Madalena.

5. Marin auzoko baserriak

- **Erref:** ESK-010/008
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:11:35. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Bera gaztea zenean Marinen zeuden baserrien izenak (goitik behera): Belategi, Uharte, Emalditxiki, Emaldihaundi, Idiazabal, Garaikua, Etxebarrixena, Borretxe (?), Laudiogoikua, Iturrate, Maiñurti, Agarre, Mañarte, Maistroetxia, Abadeetxea, Etxaundi, Etxaunditxiki, Zabale, Erromarate, Azkarraga, Isasi, Irurena, Erregena, Bidabeitigoiko, Bidabeitibeko, Intxusti, Arane.

Transkripzioa

- Ni gazte nintzanian, ba, esango [dizkizut] nahi badezu baserri guztien izenak.
- Aber, esan, esan. Eta goguan dakazuz danak, e?
- Bai, bai! Bai, ba, han jaio ta han bizi ta... Goitik hasiko gera: gorengo etxia da Belategi, Belategi. Gero onduan dauka beste bat: Ugarte. Bai, Ugarte. Gero Emaldi, eta Emaldi da Emaldi txiki eta Emaldi haundi, bi Emaldi dia. Gero beste bat zan Idiazabal, baiña hori galdu zan. Galdu zan, nere denporan, e! Galdu zan... ba, haixiak... jausi zan hori, bai. Bueno, gero jarraituko dogu. Gero geuria, Garaikua, ta gero Etxebarrixena. Eta beste bat zan, oain hau ere galduta da... Gorretxe uste dot daukela izena, Gorretxe. Gero Laudio: Laudio Gokua ta Laudio behekoa, bi bizitzadun teillatu baten, teillape baten, ezta? Bi bizitza eukena. Horrek [die] Laudio Gokua ta Laudio behekoa. Gero hurrengo dator Iturrate ta hurrengua Maiñurti, Maiñurti. Gero, Agarre. Gero Mañarte. Gero dator maixuen etxia, Maistretxia, Maistruetxia. Bai. Han maistrue edo [maisutza] eitten euen ez zan maistro karreraduna, e? Baizik pixkat zekiena irakurtzen ta...
- Kultotxuaua ta...
- [kultotxuaua] ta... hua egon zan, urtietan egon zan maisu bezala. Bueno, esan degu [...]. Gero abadien etxia, Abadetxia, ezta? Abadetxia. Gero Etxaundi, horixe zan etxerik, hola, haundieta ta hola palazioan antzekoa, ezta? Hori ere erre ein zan. Harek eukan bere ondoan, berari dagokiola,

ezta, eukan Etxaundi txiki.

- Etxaundi txiki?

- Etxaundi txiki. Bera zan Etxaundi, ta eukan Etxaundi txiki. Gero dator Zabale, Zabale bai. Ta gero dator Erromarate, Erromarate. Gero... a! Beste bat galdu zana, Azkarraga. Gero Isasi. Gero dira Irurena ta Erregena, Bidebeitti goitti ta Bidebeitti beheko, Bidebeitigoiko ta Bidebeitibeko. Bi. Gero Insustegi.

- Jesus! Basarri asko, ezta?

- Bai, horrek... Eta gero Arane. Arane. Lehen esan degun...

- Ermittia...

- Ermittia onduen euki euena, e! Galdu zana. Bai. Horrek dia Maringuek zienak; gero Mariñeri parrokira zertu... ekarri zienak [...] izan ziran Gatzikarro, lehen esan deguna, Auzibar... Arozibar esaten due zaharrak, e? Auzibar esaten dou guk hola, baiñe izena osua Arotzibar zan.

- Arotzibar... eta honek guztiok ze dia Aramaixokuak?

- Aramaixokuak die, bai. Aramaixo, Azkoagako partien.

- Baiña parrokixia...

- Oin bai, lehen izan zien zerak...

- Maringuak.

- Maringuak. Ta Mariñera pasa zian horrek...

6. Beste auzo batzuetako baserriak

- **Erref:** ESK-010/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:17:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Berez Marin auzokoak ez ziren baserriak, baina parrokiak bat egiten zutenak: Gatzikarro, Auzibar, Arotzibar. Baserri hauek zergaitik bilakatu ziren parrokiak Maringoak; historia ezagutzen du

7. Ohitura zaharrak: bataioak

- **Erref:** ESK-010/010
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Bataioen inguruko azalpenak. Ahalik eta lasterren bataiatzen zen umea. Linboaren beldurra. Aita eta ama-pontekoak. Amaren eliza-sartzea. Ohitura zaharrak.</p>

8. Ohitura zaharrak: haurdunaldia; jaiotzak

- **Erref:** ESK-010/011

- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Nagusiei entzundako antzinako kontuak: ama teilapean; abortua izanez gero, umea teila barruan lurperatzen zuten.</p>

9. Ohitura zaharrak: familiaren hilarria

- **Erref:** ESK-010/012
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etxe bakoitzak bere hilarria zuen elizan. Maiorazgoa ezkontzen zenean, emazte berria etxeakoandrearekin joaten zen elizara eta familiako hilarriaren ardura hartzen zuen bere gain. Garai batean elizak izan duen garrantzia eta eragina gizartean.

10. Inguruko auzoetako baserriak

- **Erref:** ESK-010/013
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Berez Marin auzokoak ez ziren baserriak, baina parrokiatz bat egiten zutenak: Gatzikarro, Auzibar, Uletza. Arrupe baserrria, Zarimutzeko parrokia izatera pasa zen.

11. Santa Luzia eguna; rogatibak

- **Erref:** ESK-010/014
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Maringo auzoko Parrokia eta ermita. Santa Luzia egunean egiten ziren jaiak; ospakizunak: rogatibak. Euria egitea nahi zutenean, San Lorenzo eramaten zuten prozesioan. Etxe bakoitzetik kideren batek hartu behar zuen parte ospakizun hauetan.

12. Sorgin kontuak Aramaion

- **Erref:** ESK-010/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Aramaio inguruko kontu zaharrak. Sorgin kontuak. On Joxe Miel Barandiarani eman zizkion berak ahoz jasotako ipuinak. Ahozko transmisioa belaunaldien artean.

13. Sorgin kontuak Marinen

- **Erref:** ESK-010/016
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:29:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Sorginen inguruko ipuina. Gauean goruetan egiten geratzen zen etxeoandrea; katu beltza. Marinen kontatzen zen ipuin hau; berak Barandiarani jakinarazi zion.</p>

14. Ahozko transmisioa; antzinako ipuinak

- **Erref:** ESK-010/017
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:29:55. **Bukatu:** 00:31:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Sorgin kontuak. "Gauekoa". "Eusko Folklore". Ahozko transmisioa belaunaldiz belaunaldi.

15. Anbotoko Mari

- **Erref:** ESK-010/018
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:31:45. **Bukatu:** 00:33:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Anbotoko Mari. Eusko Ikaskuntzak Carmelo Etxegarairen omenez egindako Kongresoa; txostenak liburu batean bildu zituzten.</p>

16. Anbotoko Mariren inguruko kontakizuna

- **Erref:** ESK-010/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:33:05. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>"Anbotoko señoria"ren inguruko kontakizuna. Oriamenditik Anbotora joaten zen. Barandiaranek jasota ditu herri desberdinetan ezagunak diren bertsiok.</p>

17. Don Joxe Miguel Barandiaran Gasteizko seminarioko irakasle

- **Erref:** ESK-010/020
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Barandiaran seminarioan ezagutu zuen. Gerra garaian kanpora irten behar izan zen. Hainbat arlotan aditua zen: matematika, elektronika, fisika... Lehenengo emisora ere berak sortu zuen. Oso gizon jakintsua eta era berean apala. Arkeologian aditua. Irakasle bezala, gizon zorrotza.

18. Gasteizko seminarioa; irakasleak

- **Erref:** ESK-010/021
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Gasteizko seminarioan irakasle desberdinak izan zituzten; gai bakoitzean aditu batek ematen zuen klasea. Barandiaranekin ikasten zituzten gaiak: antropologia, etnografia... Irakasle bezala nolakoa zen.

19. Gasteizko seminarioa eta don Manuel Lekuona

- **Erref:** ESK-010/022
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:42:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Gasteizko seminarioan klaseak erdaraz ematen zituzten. Don Manuel Lekuonarekin euskara ikasten zuten. Hori zen euskaraz ikasten zuten ikasgai bakarra. Don Manuel Lekuona nolakoa zen. Euskarazko klaseak noiz eta zergatik hasi ziren. Arturo Campión.

20. Errepublikara garaia Gasteizko seminarioan

- **Erref:** ESK-010/024
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:46:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Don Manuel Lekuonaren klaseak nolakoak izaten ziren; zein izaten zen bere helburua. Euskaraz ez zekitenekin erabiltzen zuen pedagogia. Errepublika garaian abertzaletasuna indartzen hasi zenean, seminarioan ere politika gaiak sartzen hasi ziren eta euskara, galtzaile irten zen.

21. Don Manuel lekuona eta Joxe Miguel Barandiaran

- **Erref:** ESK-010/025
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Politika gaiak seminarioan sartu zirenean, don Manuel Lekuona oso kritikatu izan zen euskara irakasten zuelako. Gizon ona zen. Barandiaran kontu-kontari ibiltzen zen gazteenekin.

22. Don Manuel lekuona eta Joxe Miguel Barandiaran; Bergarako seminarioa

- **Erref:** ESK-010/026
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Don Manuel Lekuona eta Joxe Migel Barandiaranen arteko harremana nolakoa zen. Gerra Zibila hasi zenean, Bergaran ireki zuten seminario bat eta irekiera ekitaldian, gauza gogorak esan ziren.</p>

23. Umetan, meza-laguntzaile Marin auzoan

- **Erref:** ESK-010/027
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:52:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Marin auzoan meza-laguntzaile izatera nola iritsi zen. 9-10 urterekin hasten ziren monagilo izaten. Meza-laguntzailearen zereginak zeintzuk izaten ziren.

24. Meza-laguntzailearen egitekoak

- **Erref:** ESK-010/028
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:52:50. **Bukatu:** 00:56:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Meza-laguntzaile bezala abadeari lagundu ahal izateko, latin pixka bat ere ikasi behar izaten zuten. Monagiloaren egitekoak zeintzuk izaten ziren. Errogetibak, prozesioak.

25. Bedeinkazioak egitera baserrietara

- **Erref:** ESK-010/029
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:56:20. **Bukatu:** 00:57:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

29. Trenbidean lan egitera etorritakoen eta bertakoen arteko harremana

- **Erref:** ESK-013/002
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

"Maketoak". Kanpotarren eta bertakoen arteko harremana nolakoa zen. Baserri askotan apopilo egoten ziren kanpotar batzuk. Garai hartan baserrietan diru gutxi egoten zen eta horrelako diru-sarrerak oso garrantzitsuak izaten ziren. Medikuei, albaitariari ere gariekin ordaintzen zitzairen garai batean. Errenteroak; etxe-jabeak. Medikuei lastoa ere ematen zitzairen.

30. Trenbidean lan egitera etorritakoen integrazioa

- **Erref:** ESK-013/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

Trenbidean lan egitera kanpotik etorritako gizon asko, behin lana amaitu ondoren bertan geratu ziren; ez guztiak, baina bai gehientsuenak. Integrazioaren inguruko kontuak.

31. Trenbidearen ibilbidea

- **Erref:** ESK-013/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

Trenaren, trenbidearen inguruko azalpenak. Mekolalden Zumarragatik zetorren trenarekin bat egiten zuen, eta Maltzagara joateko bidez aldatzen zuen.

32. Ikatzezko trenak. Baserritar asko Gasteizera feriara

- **Erref:** ESK-013/005

- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

Trenaren, trenbidearen inguruko azalpenak. Gerra aurreko urteetan sartu zuten elektrizitatea bidean; ordura arte ikatzarekin zebilen trena. Trenean lan egiten zuten langileak. Gasteizera baserritar asko joaten ziren trenez gaztainak saltzera.

33. Maltzagako geltokia

- **Erref:** ESK-013/006
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

Maltzagako geltokia nolakoa zen. Bertan 3 norabidetako trenak elkartzen ziren. Trenbideko langileak.

34. Umetako okerkeriak trenbide inguruan

- **Erref:** ESK-013/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Umetan trena ikustera joaten ziren zubi gainera. Umetako gaiztakeriak. Trenaren ordutegia.

35. Mekolaldeko geltokia

- **Erref:** ESK-013/008
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

Mekolaldeko geltokia. Trenaren inguruko aipamenak.

36. Inguruko herri eta auzoetatik baserritar asko Gasteizera joateko jokera

- **Erref:** ESK-013/009
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Gasteizera joateko joera handia izaten zuten. Bertara joaten ziren gaztainak, sagarrak saltzera. Gasteiz nolakoa zen bera umea zenean. Marin, Zarimutz, Mazpelatik baserritar asko joaten ziren Gasteizera. Mazpelak hasieran ez zuten tren geltokirik.

37. Gasteiz, Arrasateko feriak. Umea zenean oso auto gutxi

- **Erref:** ESK-013/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gasteizen ostegunetan egoten zen merkatua. Ganadu-feria garrantzitsua Arrasaten izaten zen. Behin Arrasatera oinez joan zen aitarekin; auto bakar bat ikusi zuten. Bera umea zenean, oso auto gutxi ikusten ziren inguruan. Arrue, Beroa lantegiko ugazaba, autoa zuen bakarrenetakoa garai batean.

38. Arrasatetik ogi-saltzailea Gatzagara

- **Erref:** ESK-013/011
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Arrasatetik ogi-saltzailea joaten zen Gatzagara zaldiz. Toponimia. "Txintxaleku". Gatzagako igoeran, aurre-idiak jartzen zizkieten gurdiari.</p>

39. Gerra aurreko urteetan oso auto gutxi

- **Erref:** ESK-013/012
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:23:15

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Inguruan ikusi zuten lehenengo autoa, Arrue-rena; nolakoa zen. Oso auto gutxi ikusten ziren gerra aurreko urteetan.

40. Eskoriatzako medikua zaldiz ibiltzen zen

- **Erref:** ESK-013/013
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:23:15. **Bukatu:** 00:25:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Eskoriatzako medikua zaldiz ibiltzen zen baserriz baserri. Soldadutzatik etxera gaixorik iritsi zen Jose. Orduko medikua nor zen gogoan du.</p>

41. Seminaria joateko erabakia

- **Erref:** ESK-013/014
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:25:45. **Bukatu:** 00:29:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Seminaria joateko erabakia nola hartu zuen. Ume-umetatik monagilo ibilitakoa zen Jose. Seminarioaren egoitza aurretik Andoainen egon zen; gerora Saturraranen jarri zuten (bera sartu baino bizpahiru urte lehenago). Saturrarango kontuak. Jose Mari Arizmendiarieta.

42. Gasteizko seminario nagusia; II Errepublikaren aldarrikapena

- **Erref:** ESK-013/015
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:29:35. **Bukatu:** 00:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Seminarioa nolakoa zen. Jantokia; kapila txiki bat; logelak... Beraiek Saturraranen zeudela, Gasteizko seminario nagusi berria amaitu zuten (1930).

Inaugurazio ekitaldira Alfonso XIII joan zen. Urtebete beranduago Errepublika aldarrikatu eta erregea Espainiatik joan behar izan zen. Orduko gogoetak. Ikurrina.

43. Gasteizko seminario nagusiaren irekiera ekitaldia

- **Erref:** ESK-013/016
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Gasteizko seminarioaren inaugurazio ekitaldia nolakoa izan zen. Euskarazko olerki bat ere irakurri zen.

44. Saturrarango seminarioa: zer ikasten zuten

- **Erref:** ESK-013/017
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Saturrarango seminarioa. Zer ikasten zuten bertan: latina; historia, e.a. Nongo mutilak batzen ziren bertan. 4 urtetan bertan ikasi eta ondoren Gasteizera joaten ziren.

45. Seminarioko bizimodua nolakoa zen

- **Erref:** ESK-013/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:37:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Saturrarango seminarioan bizimodua nolakoa zen; egunerokotasuna. Zenbat urterekin sartzen ziren mutikoak bertan.

46. Abadeekin hartu-eman; irakasteko metodologia desegokia

- **Erref:** ESK-013/019
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:37:20. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Irakasleekin, abadeekin hartu-emana nolakoa izaten zen. Pedagogia aldetik ez zeuden ongi prestatuak. Lehenengo urtean asko kostatu zitzaion latina ikastea.

47. Hilean behin eskutitz bat bidaltzen zuen etxera

- **Erref:** ESK-013/020
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:44:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Irakasleekin, abadeekin hartu-emana nolakoa izaten zen. Etxekoekin harremanak nolakoak ziren; hilabetean behin karta bat jasotzen zuten. Gabonetako oporrak eta udakoak, etxean ematen zituzten.

48. Umetako jolasak Saturraranen

- **Erref:** ESK-013/021
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:44:20. **Bukatu:** 00:45:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Seminarioan erabiltzen zuten arropa. Umetako jolasak: pilotarako zaletasun handia.

49. Latinaren garrantzia; abadetzaren bidea, gogorra

- **Erref:** ESK-013/022
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:45:40. **Bukatu:** 00:48:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Saturrarango seminarioan garrantzi gehien zuen ikasgaia, latina zen. Ikasten zituzten beste gai batzuk. Gasteizen, Juan Manuel Lekuonarekin euskara ikasi zuten. Abadegai izateko bidea, ikasketak... bide gogorra zen. Mutiko askok bertan behera uzten zuten guztia.

50. Gasteizko seminarioa; Jose Miguel Barandiaran

- **Erref:** ESK-013/023
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:51:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Gasteizko seminario berria nolakoa zen. Azalpen ugari gai honen inguruan. Jose Miguel Barandiaranekin zer ikasten zuten. Bera bertan egon zenean zenbat ikasle inguru zeuden; nongoak.

51. Erljioa eta politika seminarioan; abertzaletasuna

- **Erref:** ESK-013/024
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:51:15. **Bukatu:** 00:55:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublikak

Laburpena:

Ikasleen arteko giroa nolakoa zen. Errepublikak garaian politika kontuak garrantzi gehiago hartzen hasi ziren eta abertzaletasuna nabarmentzen hasi zen poliki-poliki, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoako abadegaien artean... Irakasleek politika kontuak ez zituzten aipatu ere egiten. Don Mateo Mujika.

52. II. Errepublikaren aldarrikapena; abertzaletasuna eta Aberri Eguna

- **Erref:** ESK-013/026
- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:56:45. **Bukatu:** 01:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublikak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>II. Errepublikak aldarrikatu zeneko kontuak. Bertsopaperak irten ziren gaiaren inguruan eta horietako bat gogoan du oraindik. Euzkadi aldizkaria. Primo de Riveraren diktadura. El Día aldizkaria. Lehenengo Aberri Eguna Saturraranen. Abertzaletasun sentimendua.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com